

Diru-iturriak

- Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Prezioak nahiko garestiak izango dira, zeren kantitate handia eskainiko dugu eta kalitate ona bermatuko diegu. Kantiataren aldetik, askok bere platera konpartituko dute, eta horregatik, plater bat bi pertsonentzako izan daiteke. Kalitatearen aldetik zapore oneko janaria eskainiko diegu eta nahiz eta janari azkarra izan orokorrean produktu oso onak erabiliko ditugu, eta gainera, eskaintza nahiko handia izatea espero dugu.

Ordaintzeko metodoaren aldetik, metalikoz zein mota guztietako txartelak onartuko ditugu (visa, mastercard...). Gainera, bezeroei segurtasun handia bermatuko diegu txartelarekin ordaintzerakoan mesfidantza ez izateko.

Gainera ordaintzerako garaian internetetik kupoi edo oferta asko eskainiko diegu, horrela bezero gehiago etorriko dira eta gehiago kontsumitu.